

# Galtzaundi



**Eskualdea:** Franco Anoetako ohorezko alkatetzatik kendu dute >>> Anoetan argazki eta bideoak biltzen >>> Tolosako berdintasun saila herritarren kezkei erantzunez **Kultura:** Ipuin kontaketak Errota haur liburutegian **Kirol saltsa:** Mikel Arruabarrenari elkarriketa.

**ELKARRIZKETA:** Antton Karrerarekin solasean



Bideg  
Albztur  
Ikaztegieta  
Baliarrain  
Orendain  
Abaltzisketa  
Amezketeta  
Alegia  
Altzo  
Lizartza  
Orexa  
Anoeta  
Berrobi  
Elduain  
Belauntza  
Gaztelu  
Berastegi

*Tolosaldean  
inbertitzen*



**M<sup>a</sup> Teresa de Olabarria Ruiz**  
OPTOMETRISTA

- IKUSMEN TERAPIA**
  - Estrabismoak
  - Anbliopiak (Begi alferra)
  - Ikaste zailtasuna
  - Garapeneko arazoak
  - Garezur-entzefaliko traumatismoek eragindako arazoak
- AUDIOTRAINING**
  - Hiperaktibitatearen murrizpena
  - Ansietatearen murrizpena
  - Animoaren hobekuntza

San Francisco 11, 1<sup>o</sup> ezk. TOLOSA  
e-maila:teresaola@euskalnet.net  
HITZORDUA - 652 773 813



**Mertxe Arregui**  
Logopedo-Logopedoak



- Pedagogi erlatiboa (Kontu, irakurte dokumentu erlatiboa)
- Logopodia
- 11 orain arte, hainbat arazoak dituzten pertsonen irratizuzkuntza.
- Mi laguntza
- Haurrak
- Haurrak
- Haurrak
- Haurrak

Jarduera guztiak ere gaitasunak iradokitzen dituzten arazoak dira.

Luzapena: 1. martxoaren 1. nahiak (Astelehenetik aurrera)  
Oraindik ere gaitasunak dituztenak  
Web: [www.martxoaren1.com](http://www.martxoaren1.com)  
Luzapen: [www.martxoaren1.com](http://www.martxoaren1.com)

Ondo pasa Inauterietan!!!!



**PLATZ**  
- TRESNAK -

Tolosa, Euzkadi, 11. Buzena 20070  
Telefonoa: 943 650 375 - Faxa: 943 650 206  
www.platz.com



**aldama\_tapia**  
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7  
20400 TOLOSA Gipuzkoa  
Tel. 943 650 375  
Faxa 943 650 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)

**MULTIOPTICAS**  
I.A. ZERBITZU OPTIKOETAN




77% irabazpena

100% irabazpena

[www.martxoaren1.com](http://www.martxoaren1.com)

1. Calle, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Araoz**

2. Buzena 11, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Araoz**

3. Buzena 11, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Dokoma**

4. Buzena 11, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Gait**

5. Calle Millaneta, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Orreaga**

6. Buzena 11, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Irati**

7. Buzena 11, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Ondoa**

8. Buzena 11, Tolosa 1. Tel. 943 650 375. **Rioxa**



**Argitaratzailea:** Galtzaundi Euskara Taldea.

**Helbidea:** Nafarroa etorbidea,  
6-behea,  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

**Telefonoa:** 943 655 004

**Faxa:** 943 654 983

**e-posta:** galtzaundi@galtzaundi.com

**Webgunea:** www.galtzaundi.com

**Koordinazioa:** Leire Zubeldia.

**Erredakzio taldea:** Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,  
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

**Kolaboratzaileak:** Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

**Publizitatea:** Angela Alamo.

**Banatzaileak:** Oihana Sanchez,  
Juanak Arregi.

**Idazkaria:** Edurne Mendia.

**Maketazioa:** Zigor Agirrezabala

**Diseinua:** Jon Ander Ubeda eta  
Maddi Trutxuelo.

**Azala:** Galtzaundi

**Inprimategia:** Antza.

**Tirada:** 5.000 ale.

**Lege gordailua:** SS-906/91.

**Frankeo Itundua:** 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abeltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Armezketza, Anoeta, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Herrialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundi ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

Aldizkari honek Gipuzkoako  
Foru Aldundiarren laguntza  
jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzeko Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalarren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

## IRITZIAREN LEIHOA

- Ibon Artola: EREen aurka langileen borroka bateratu eta koordinatua
- Elixabet Izagirre: SEADaren zilegitasuna onartu

## NORMALIZAZIO ATALA

- Hizkuntz eskubideen urraketa bat, kexa bat



4-5. orrialdeak

6. orrialdea

## ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Anoeta: Franco ohorezko alkatetzatik kendu dute.
- Anoeta: Argazki eta bideoen bilketa.
- Tolosa: Berdintasun saila herritarren kezkei erantzuten.

10-13. orrialdeak

# Galtzaundi 296

2009ko otsailaren 20a

Iritziaren leihoa: Ibon Artola eta Elixabet Izagirre .....	4-5
Eskualdeko albisteak:	
Anoeta: Franco ohorezko alkatetzatik kendu dute .....	10
Anoeta: Argazki eta bideoen bilketa .....	11
Tolosa: Berdintasun saila herritarren kezkei erantzuten .....	12-13
Kultura:	
Ipuin kontaketa hileko lehen ostegunetan Errotan .....	20-21
Kirol saltsa:	
Mikel Arruabarrenari elkarrizketa .....	22-23



## ERREPORTAIA

Herri bat, inbertsio bat

7-9. orrialdeak

## ELKARRIZKETA

*“Azkeneko bilkuran agurtu egin nitzen, esanez, han nengoan azkeneko aldia zela. Zortzi urte eman ditut Gasteizen lanean, eta orain beste gauza batzuk egin nahi ditut. Hurrengo legebiltzarreko mahaia osatzen den egun berean jubilatuko naiz. Jubilatu bai, baina ez naiz erretiratuko. Hor dago diferentzia. Orain politika-gintzan egiten ditudan gauza batzuk utziko ditut, gustuko ditudan gauzak egiteko tarte gehiago hartuko dudalarik.*

- Antton Karrera EBko Gipuzkoako koordinatzailea

14-18. orrialdea



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**KULTURA SAIA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



## EREEN AURKA LANGILEEN BORROKA BATERATU ETA KOORDINATUA

### IBON ARTOLA

Euskal Herria Sozialista aldizkariko kidea

**B**urgesiaren komunikabideek esan digute krisiaren arduradunak eskrupulurik gabeko bankariak eta merkatua erregulatzeko kontrol falta izan direla. Modu honetan, bereiztu egin nahi dituzte enpresari zintzoak eta gaiztoak. Gorde egin nahi digute kapitalismoaren motorra gutizia eta irabazi maximoaren borroka direla. Marxismoak beti azaldu duen bezala, kapitalismoan ekoizteko baliabideak esku pribatuetan daude eta aktibitate ekonomikoaren helburua ez da herritarren gehiengoaren beharrak asetzeta, klase kapitalistaren irabaziak handitzea baizik. Horregatik, arazoa ez da norbanako batena edo bestearena, arazoa sistema ekonomikoa bera da. Gehiegizko ekoizpenaren krisi globala da hau. Merkatua ez da gai ekoiztu den kotxe, etxe, merkantzia... kopurua kontsumitzeko. Honen ondorioz, ekoizteko indarren, industriaren eta milioika lanposturen suntsiketa ari gara ikusten.

Lehertu den burbuila espekulatioa gobernu guztiek bulztatu zuten, hauek eskuinekoak edo sozialdemokratikak izan. Kapitalismoaren logika onartuz, pelotazo inbiliariorien festari eta burtsako espekulazioari babesa eman zioten, eta

noski, zerbitzu eta enpresa publikoak pribatizatu dituzte monopolio handien negozioen onerako. Inongo gobernuak ez zuen arazorik izan lan merkaturaren erreformak onartzeko, enplegu duina suntsituz eta langileen lan baldintzak okertuz. Globalizazioaren eta konpetentziaren izenean hartu zituzten gobernuak neurri hauek, eta zin egin zuten enplegua eta etorkizuna bertan zuten gobernuak erabazteko. Baina, errealitateak erakutsi du, kapital handiaren eta banku handien irabaziak modu lotsagarrian hazteko bakarrik balio izan dutela.

Enpresariak, bankariak eta multinazionalak errekorrezko irabaziak pilatu dituzten bitartean gure soldatak murriztu eta lan baldintzak okertu egin dira. Orain, enpresen irabaziak tasak erortzen hasi direnean, hau da, gutxiago ari dira irabazten eta ez irabaziak galtzen, ekoizpen kostuak murriztu nahi dituzte milaka langile kalera botaz. Gero eta gehiago diren EREak sektore guztiak ukitzen ari dira izurrite baten moduan. Zorixarrez, agintari sindikal batzuk ERE hauek onartu dituzte enpresariaren arrazoiak "ulertuz". Baina jarrera hau erabateko akatsa da. EREen onartzeak langileen erantzun ahalmena murrizten dute eta abantaila

ematen diete enpresariari lanpostuak suntsitzeko.

Beste gobernu guztien moduan, Ibarretxeren gobernuarenean enpresariaren aldeko neurriak hartzen ari da. Banku handiei emandako diru laguntzak babestuz, Eusko Jaurlaritzari bost axola zaio diru hau langileen poltsikoetatik ateratzea. Ikaragarritzako dirutzak bankuei ematen zaizkien bitartean uko egiten diete lanpostuak eta langabezia sorospena mantentzeko diru publikoa erabiltzeko. Argi utzi digute beste behin ezin dugula gobernu eta patronalengan konfiantzarik izan. Ez dute ezer egingo langileon alde. Ez zaigu gertatzen borroka egitea beste erremediorik.

Mundu osoan gertatzen ari den moduan Euskal Herrian ere langileen mobilizazioak handituz joan dira azken hilabeteetan ERE, kaleratze eta soldata murrizketen aurka. Langileek egindako greba eta manifestazioetan garbi ikusi da langileek eta hauen familiek daukaten borrokarako konpromisoa euren lanpostuak eta soldatak defenditze arren.

Beharrezkoa da gatazkan dauden fabriketako langileen borroka elkartzeta. Arazoa berdina bada, mugimenduaren indarra biderkatu egiten da

mobilizazio bateratu eta koordinatuekin. Oso zaila da lanpostuak enpresaz enpresa defendatzea. Oso zaila da EREak fabrikaz fabrika atzera botatzea. Are gehiago, patronala harropuzten duten soldata murrizketak onartzen edo negoziatzen badira.

Euskal Herria Sozialistak beharrezkoa ikusten du errebindikazio hauek defendatzea: Krisian dauden enpresen nazionalizazioa langileen kontrolpean! Diru publikoa lanpostuak eta langabezia sorospen mugagabea bermatzeko, ez bankuei oparitzeko! Banku eta monopolioen nazionalizazioa errekurtsio hauek inbertsio publikorako (etxebizitza, osasuna, hezkuntza...) erabiltzeko! 35 orduko lan astea enplegua banatzeko, soldata murrizketarik gabe!

Baina hau, mobilizazio zabal, indartsu eta bateratuekin bakarrik lortu daiteke. Horregatik, sindikatuek, 24 orduko greba orokorra antolatu behar dute errebindikazio hauek defendatzeko. Greba orokor bat langileen eta herritarren babesa izango luke. Greba orokorra ez litzateke izan behar helburu soil bat, patronala eta gobernuaren neurrien aurkako baliabide indartsu bat baizik. ■



kutxa

### SANTA LUZIA GARAGEA



Grua zerbitzua 24 orduetan

943 653 491 943 653 874  
943 653 985 943 806 020  
Santa Luzia, 1 TOLOSA





## SEAD-AREN ZILEGITASUNA ONARTU!

### ELIXABET IZAGIRRE

Tolosaldea Sahararekin taldeko kidea

**S**EAD (Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa) estatu espainiarreko Afrikako azken kolonia izan zen, duela 33 urte arte. Franko hiltzorian zegoelarik, EEBBak eta Frantziaren presiopean Espainiar gobernuak ordurarte, itxuraz behintzat, mantendu zuen jarrera ahaztu eta bere politika aldatzea erabaki zuen. Mendebaldeko Sahara Marokoko gobernuari era lotsagarri batean uztea onartuaz. Horretarako, Madrilera akordioak deiturikoak prestatu zituen eta bere ejerzitoaren ohorea kaltetuko ez zuen zibil marokoarren martxa onartu zuen. Baita ere, Saharar lurraldea Marokoar monarkia eta Mauritaniar errepublika islamzalearen artean banatzea onartu zuen, urte guzti hauek luza den gatazka armatua eta giza tragedia larria eraginez.

33 urte beranduago, lehenengo lepotik burua. Erabateko gaitzespena merezi du Espainiar gobernuaren jarrerak. Gatazkarekiko duen erantzunkizun historikoa ahaztuz eta urteetan itxuraz gorde duen inpartzialtasuna hautsiz, behin eta berriz entzun ahal izan dugu azken hilabeteotan 'marokoar demokraziaren' bertuteak gorensten edo Europar Batasuna (EB) eta marokoar gobernuaren arteko lehentasunezko merkataritza itunak bultzatzen eta babesten nazioarteko legediaren aurkako itunak direla jakin arren, Mendebaldeko Sahara bere baitan jasotzen

duten artean behintzat. Gogoratu beharra dago nazioarteko inongo erakundek oraindik ez duela lurralde okupatuekiko Marokoren subiranotasuna onartu, eta lurraldea amaitu gabeko deskolonizazio prozesuan dagoenez, legez kanpokoak direla Mendebaldeko Sahara bere baitan hartzen dituzten marokorrek sinaturiko merkataritza itunak. Amerikar estatu batuetatik eta marokorrek sinaturiko merkataritza akordioek espreski salbuesten dute Mendebaldeko Sahara.

Bainan Mendebaleko Saharan gertatzen diren urraketak larrinak, nahiz hauen garrantzia hutsala ez izan, ez dira merkataritza arlokoak.

Munduak, Irakekeko eta Afganistango inbasioak edo Israelgo gobernu sionistak Palestinan eragindako genozidioa ezagutzen ditu. Aurreko mendean berriz, imperialismo estatubatuarrek, besteak beste, ertamerikako herriek demokratikoki aukeratutako gobernuen aurkako estatu kolpe eta gerrate, Hiroshima eta Nagasakiko sarraski nuklear, Vietmango gerrate eta hainbat eta hainbat herrialdeetako milaka eta milaka haur, heldu edo zahar babesgabeen giza eskubideen bortxaketa etengabea ezagutu genuen. XXI. mende bete betean berriz, gizateria saharar herriak azken 33 urtetan justizia, bakea edo autodeterminazioa eta independentzia eskatzeagatik jasan dituen sufrimenduen berri izateko eskubidea ukatu zaio.

Marokoko gobernuak eta bere indar errepresiboak eragindako giza eskubideen bortxaketa kriminala pairatzen duen herria da Saharar herria. Marokoar gobernuak imperialismo estatubatuarrek hazitako txakurtxoak besterik ez da. Bere helburua magrebeko eremu ezegonkorren gainean kontrola izatea eta inguruko herrialdeak kontrolatzea delarik. Erregimen alaita terrorista, Israelgo gobernu sionistaren anaia bixkia dugu. Mendebaldeko Saharan jende errugabea desagerraraziz garaipena ospatzen du, garaipena ospatzen du haur eta gazte sahararrak atxilotu eta torturatzen dituztenean, garaipena ospatzen du eskumuturra altxatuaz 'sahara askatu' ohikatzen duten emakumeak erailten dituztenean.

Sahararrak, Palestinarrak bezala, euren lurralde okupatuetan bizi dira, esperantzarako, bakerako, zoriontasunerako, irrifarrerako... eskubiderik gabe. Mendebaldeko Sahara lurralde okupatu eta lurralde liberatu artean banatzen du Marokor eraikitako eta 2700km luze den 'lotsaren harresia'. Harresi hau Israelgo sionistek Gazan eraikitako harresia baina 100 aldiz handiago da. Marokoar indar errepresiboak gau eta egun zaindua eta pertsonen aurkako mundu osoko mina, horietako asko Euskal Herrian egindakoak, kontzentrazio handiena duen lur eremua da Saharar herriaren zoritxarrerako.

*"Bada garaia marokoar gizarteak Mendebaldeko Sahararako bakea, justizia eta giza eskubideak aldarrikatu eta marokoar erregimen totalitarioaren basakeriak salatu dezan".*

Guzti honengatik, bada garaia Espainiar estatuak urtetan uko egin dion erantzunkizunari adarretatik hel diezaion, eta munduko hainbat estatuk egiten duten moduan SEADaren (Saharar errepublika Arabiar Demokratikoa) zilegitasuna onartu dezan eta bada garaia nazioarteko judu antisionistak Palestinar herriaren aurkako genozidioa salatu duten moduan, marokoar gizarteak Mendebaldeko Sahararako bakea, justizia eta giza eskubideak aldarrikatu eta Marokoar erregimen totalitarioaren basakeriak salatu dezan.

Zalantzarik ez, arestian aipaturiko balizko gertakariak aurrerapauso itzela suposatuko luketela Saharar herriari dagozkion eskubideen ezagutzan eta gatazka-zen zuzenbidezko konponbidean. Gu gure aldetik, Tolosaldea Sahararekin elkartetik jarraituko dugu Saharar herriak jasaten duen urtetako injustizia eta basakeriak salatzen eta herri bezala dagozkion eskubideak aldarrikatzen.

**Maroko Saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko Sahararentzat ■**

# Hizkuntz eskubideen urraketa bat, kexa bat

TOLOSALDEKO UDALERRIETAN EUSKALDUNEN HIZKUNTZ KEXAK JASOTZEKO BUZOIAK JARRI DIRA

Erredakzio Batzordea

**T**olosaldean ugariak dira hizkuntz eskubideen urraketa kexak ematen diren eremuak eta dagoeneko, hizkuntz eskubideen urraketen aurrean kexak jartzeko, UEMAKo hainbat udalerritan buzoiak jarrita daude. Tolosa, Ibarra eta Villabonako herriek ere buzoiak jarriko dituzte otsailean. Tolosa eta Ibarra herritarrek, udalerriko Kultur etxean izango dituzte buzoiak. Villabonan berriz, liburutegian. Arrazoi nagusia, euskaldunok euskaldun koherente gisa jokatzeagatik edo jokatu nahi izateagatik izan dituzten eskubide urraketa salatzea da. Izan ere, oraindik asko dira euskaldunak baztertzeko tokiak eta eragileak: erakunde publiko nahiz pribatuak ez dituzte agiriak euskaraz bidaltzen, ahoz euskaraz hastean gaztelaniaz mintzatzeko eskatzen dute, informazio komertziala gaztelania hutsez bidaltzen dute... Kasu horiek guztiak eta gehiago jasotzeko eta horiei irtenbidea bilatzeko, Tolosaldeko udalek buzoiak jarri dituzte herritarren eskura, udaletxe-

**Hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean jarrera irmoa izan behar dugu euskaldunok. Nahikoa dela esateko garaia iritsi zaigu, ezin onar dezakegu gure hizkuntzan, bizitzeko eskubidea baliatu nahi dugunok oztipoak besterik ez izatea.**

etan, Kultur etxean nahiz beste udal instalazioetan.

Kexa jartzera joaten denak inprimaki batzuk izango ditu buzoien ondoan, betetzeko simple-sinpleak. Nolanahi ere, zailtasunik izanez gero edo argibiderik behar izanez gero, udal langileek beren prestutasun osoa adierazi dute, nahi adinako laguntza emateko. Gainera, udaletxeetara joaterik ez dutenek ere aukera izango dute kexak telefonoz

jartzeko. Batetik, UEMAKo bulegora dei dezakete (943260372), baita Galtzaundiko bulegora ere (943 655 004), han biltzen baitira Tolosaldeko kexak. Bestetik, zuzenean Behatokian jar ditzakete kexak, Euskararen telefonora deituta (902194332). Azkenik, kexak web gunean jar ditzakete, [www.euskarentelefonoa.com](http://www.euskarentelefonoa.com) helbidean.

Kexa jartzeko, izen-abizenak eman behar dira, baina

Behatokiak konfidentzialtasun osoz jokatuko du, Datuen Babesaren Legeari jarraiki, eta ez diote inori emango kexa jartzailearen daturik. Hori bai, Udalerriko Euskaldunen Mankomunitateak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak kexa behar den tokira helarazi eta haren segimendua egingo dute. Amaieran, UEMAKo, Galtzaundiren eta Behatokiaren konpromisoa da kexaren nondik norakoaren berri ematea herritarri.

Egitasmoa urriaren hasieran jarri zen abian Tolosaldeko herri batzuetan, eta dagoeneko arrakasta handia izan du. Horien artean, hamaika urratzaile daude: agiriak gaztelania hutsez bidaltzen dituzten erakunde publikoak, informazio komertziala gaztelaniaz bakarrik bideratzen duten enpresak, jendea atzitzeko langile erdaldunak besterik jartzen ez dituzten merkataritza guneak, euskaraz hutsezko agiriak onartzen ez dituzten administrazioak...

Amaitzeko, Tolosaldeko herritar guztiak animatu nahi ditugu, udal instalazioetan, jarritako buzoiak erabiltzera. ■



**ALDATZ**  
**Kristaldegia**

Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispi luak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
[kristaldatz@euskalnet.net](mailto:kristaldatz@euskalnet.net)  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

**BENTA**  
**ALDEA**

JATETXEA

Tel.: 943 654 079  
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

**ELUSTONDO**  
**ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

Turre, 4 (Mustad) 943 672 300  
Amaroz, 21. 943 675 513  
20400 TOLOSA



Tolosan 5 proiektu burutuko dituzte estatu fondoko diruarekin. Horietako bat, argazkiko gunean eraikiko duten zubiada.

# Herri bat inbertsio bat

AZPIEGITURAK BERRITZEN, EDO HERRIKO HUTSUNEAK BETETZEN INBERTITUKO DUTE UDALEK ESTATUKO FONDOTIK BIDERTUTAKO DIRU-LAGUNTZA

Leire Zubeldia

**2**009an, obra publikoak eta inbertsioak sustatu, enplegua suspertu eta egoera ekonomikoa bizkortzea. Helburu horrekin jarri du martxan Espainiako Gobernu-ko Administrazio Publikoen Ministeritzak, udalerrri mailako inbertsiorako fondoa. 2008ko abenduaren 10ean onartutako errege dekretuaren arabera, Estatuak 8.000 milioi euro banatuko ditu, eskatutako baldintzak betez proiektua aurkezten duen udalerrri guztien artean. Herri bakoitzari dagokion kopurua, biztanlegoaren arabera da.

**Udalerrri mailako inbertsiorako estatuko fondotik, diru-laguntza jaso dute Estatuko udalerriek. Tolosaldeko udaletxe guztiek euren proiektuak aurkeztu dituzte Madrilgo Gobernu-ko administrazio publikoen ministeritzan, biztanle kopuruaren arabera dagokien diru-laguntza jaso ahal izateko. Egitasmo batzuk onartu dituzte, eta beste batzuk erantzunaren zain daude. Galtzaundik, eskualdeko udaletxe guztietako atean jo du, Estatutik jasoko duten dirua zertan inbertituko duten jakiteko.**

Inbertsio plana aurkezteko epea urtarrilaren 24an amaitu zen. Ordurako, Tolosaldeko udaletxe guztiek egin zuten euren eskaera. Diru-laguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako proiektuak 2009ko aurrekontuetan sartu gabekoak izan behar dira,

eta derrigor, lan publikoak izan behar dute. Behin proiektua onartuta, gutxi gorabehera, bi hilabeteko epean hasi behar dute lanek.

Tolosako udalerrientzat opari gisakoa izan da diru-sarrera hau. Udaletxe batzuek, euren

kabuz ordaindu ezin zituzten lanak egiteko baliatuko dute laguntza ekonomiko hau. Beste batzuk, egoera txarrean dauden azpiegiturak konpontzeko erabiliko dute. Udaletxe batzuk jaso dute proiektuaren onarpena, baina badira erantzunaren zain daudenak. Dena den, hilabete honetan egitasmo guztiak onartuta geratu behar dute.

## ABALTZISKETA

Dagokion diru kopurua: 53.804 euro

Abaltzisketan bi proiektu gauzatu behar dituzte. Batetik, Olano auzoko bidegurutzeko konpondu behar dute. Bestalde,

(hurrengo orrian jarraitzen du)

**(aurreko orritik dator)**

plaza inguruko argi-indarraren kableak lurperatuko dituzte.

**ALBIZTUR**

Dagokion diru kopurua: 53.450 euro

Herri sarreratik industriagunera doan uraren hoditeri berria jarri behar dute. Abendu amaieran oharatu ziren, hodiedako batean fuga zegoela. Alde horretatik, diru-laguntza primeran etorri zaie arazoa konpontzeko.

**ALEGIA**

Dagokion diru kopurua: 298.000 euro

Alegian bi proiektu aurkeztu dituzte:

Lehena, polikiroldegitik Beistin auzoko urbanizazio berrira joateko pasealekuaren atonketa da. Espaloia jarri, argiztatu, bankuak eta zakarrontziak jarri... 500 metroko distantzia izango du pasealekuak eta soilik oinezkoentzako izango da.

Dirulaguntzaren bigarren zatia, frontoiko estalpea berritzeko bideratuko dute. Teilatua atonduta, frontoia behar dituen gainontzeko berrikuntzak urteko aurrekontuetan sartuko ditu Udalak.

**ALKIZA**

Dagokion diru kopurua: 56.000 euro

Zaharkituta dauden azpiegiturak berritzeko baliatu dute diru-laguntza.

Ur depositutik irteten den hoditeria zaharkituta dago eta 300 metroko hodi berria jarri behar dute urak alde egin ez dezan.

Urruxola baserrira doan herri bidea konpontzeko erabiliko dute bigarren zatia.

**ALTZO**

Dagoikion diru kopurua: 67.079 euro

Udaletxe alboan dagoen parkean hainbat moldaketa egin behar dituzte exijitzen den arautegia betetzeko.

Herrian, irisgarritasun plana guztiz betetzeko faltan diren lanak burutuko dituzte.

**AMEZKETA**

Dagokion diru kopurua: 168.000 euro

Paper fabrikatik herrigunera arteko ur sarea berritu behar dute. Hoditegi berria jartzeko lurra altxatu behar dutenez, aipatutako zatian pabimentua ere berrituko dute.

**ANOETA**

Dagokion diru kopurua: 316.278 euro

Anoetan gazte asko daudela ikusita, eta hauentzako aisialdirako tokirik ez dagoenez, Ikastola eremuan auditorium bat egitea erabaki dute. Aurreproiektua lehendik egina zuten udaltxean. 100 lagun ingururentzako lekua izango du aretoak, eta agertoki handi bat. Proiektu

garrantzitsua da hau. Anoetaren tizat, egun, ez baitute kultur etxerik ez eta areto egokirik kultur ekintza ezberdinak egiteko.

**BALIARRAIN**

Dagokion diru kopurua: 16.106 euro

Udaletxeko fatxada zaharberritzeko erabiliko dute Estatu-ko Fondotik bideratutako dirulaguntza.

**BELAUNTZA**

Dagokion diru kopurua: 54.200 euro

Belauntzan, herrigunetik goiko etxetara doan oinezkoentzako bidea egiteko proiektua aurkeztu dute. Pasealekuaren lehenengo fasea burutuko dute dirulaguntzarekin: bide ondoko espaloia egin, behar bezala argiztatu, bankuak jarri...

**BERROBI**

Dagokion diru kopurua: 103.892 euro

Antzi-azpikoatik Telleri-zaharera inoinezkoentzako espaloia egingo dute, egun, ez baitago tar- te horretan oinezkoak ibiltzeko bereizitako tokirik.

**BIDEGOIAN**

Dagokion diru kopurua: 85.000 euro

Herriko baserri bideak konpontzeko erabiliko dute dirulaguntza Bidegoianen. Denak berritzeko modurik ez badago, Udalak hartuko du beregain

gainontzekoak konpontzeko beharrezkoak izango den kopurua.

**ELDUAIN**

Dagokion diru kopurua: 40.176 euro

Herrian dauden beharrakikusita, hilerria berritzea erabaki dute Elduaingo Udalean. Horma-hilobiak eta gorpuzkintzako kutxa berriak egingo dituzte.

**HERNIALDE**

Dagokion diru kopurua: 59.114 euro

Hernialden, egin beharreko lan txiki asko burutzeko erabiliko dute diru sarrera. Mendi pistak eta baserri bideak garbituko dituzte, eta Udalarena den 7 hektareako saila itxiko dute. Bestalde, plazako barandila eta elkar- tea pintatuko dituzte.

**IBARRA**

Dagokion diru kopurua: 756.271 euro

Ibarraren kasuan diru-laguntza potoloa denez, proiektu garrantzitsu batean inbertituko dute. Julian Gayarre auzoaren eta bere inguruen berrikuntza integrala egingo du Udalak. Batetik, auzoaren urbanizazio egoki baterako falta diren elementuak jarri eta sarbideak hobetuko dituzte. Izaskunetik datorren ura jasotzeko azpiegitura ere osorik berrituko dute, Julian Gayarren eta baita bere



Iruran, Kultur etxea dagoen eraikina zabalduko dute.



Ikaztegieta, eskola aurreko parkea handitu egingo dute.





Baliarrainen, Udaleko fatxada konponduko dute.



Albizturren, industriagunera doan ur hoditeria berrituko dute.

inguruetan ere. Udalak azken lan hau 2009ko aurrekontuetan sartzeko asmoa zuen, baina inondik inora ez zuen halako inbertsiorik egitea aurrekusten. Alde horretatik, diru-laguntza oso ondo etorri zaiela adierazi dute.

### IKAZTEGIETA

Dagokion diru kopurua: 80.530 euro

Eskola aurrean dagoen parkea handitzeko proiektua da Ikaztegietak aurkeztu duena. Orain dagoen parkea txiki geratu da alde batetik, eta bestetik, etxeko txikienentzako jokoak ditu soilik. Eremu hau handitu, eta 8 eta 12 urte arteko haurrentzako gunea atonduko dute.

### IRURA

Dagokion diru kopurua: 224.775 euro.

Kultur Etxea eta osasun zentroa dauden eraikinean inbertituko du diru kopuru hau Irurako Udalak. Kultur Etxean, musika eskola eta gazte txokoa daude besteak beste. Bai musika gela eta bai gazte-txokoa txiki gera-

tu zaizkie. Beraz, batetik, musika eskolak emateko lekua handituko dute, gela insonorizatuak eginez. Gazte-txokoa ere zabaldu egingo da. Honekin batera, ekitaldi ezberdinak egiteko gela balioanitze ere egingo da, herrian aspaldidanik baitute areto baten beharra. Lan guzti hauek, Kultur Etxeko eraikinarene hirugarren fasearen baitan daude.

### LEABURU

Dagokion diru kopurua: 67.963 euro

Leaburun ur zikinak eta euri urak jasotzeko azpiegitura berrituko dute. Egun, soilik ur zikinak jasotzeko sarea dute. Diru-laguntzarekin, Argiñenea ingurutik Baratzondo atzeraino berrituko dute ur hoditeria, euri urak jasotzeko azpiegitura jarritz.

### LIZARTZA

Dagokion diru kopurua: 107.963 euro

Lizartzan, plaza eta bere inguruetako urbanizazioa hobetu eta berritzeko proiektua aurkeztu dute.

### ORENDAIN

Dagokion diru kopurua: 30.973 euro

Orendainen kirolgunea egingo dute. Pilotalekuaren parean egingo dute kantxa bat, futbola, saskibaloia eta bestelako kirolak egin ahal izateko.

### OREXA

Dagokion diru kopurua: 20.354 euro

Udalaren jabetza den etxe bat berritzeko erabiliko dute diru-laguntza Orexan. Etxe hori, erabilera ezberdinetarako egokitu nahi da.

### TOLOSA

Dagokion diru kontua: 3.165.966 euro

Tolosan bost proiektu ezberdinetan zatitu dute Estatuko fondoko diru-laguntza.

- Oria ibaiako presa puzgarria: Errota parean egingo da. Eraikitze lanak 5 hilabete epean egingo dira. Presa puzgarri honek, ur maila, metro batean igoko du eta kirola egiteko eremua zabaldu egingo da.

- Musika eskolako fatxada konpontzea: Egoera kaxkarrean dago. Itokinak ere sortu dira eta hau ikusita fatxada konpontzea erabaki dute.

- Urbanizazio birmoldapena Igeralde plazan: Igerileku zaharra zegoen gunearen gaikaldean dago Igeralde plaza. Egoera txarrean dago: itokinak daude, barandilak egoera kaxkarrean aurkitzen dira, argiztapena ere txarra da... Bizilagunekin hitz egin eta arazoak konpontzen hastea hitzartu dute: Asmoa, plazari bizitza ematea dela azaldu du Udalak.

- Oinezkoentzako zubia: Ibaiaren bi aldean arteko komunikazioa hobetzeko, Maxi Eroski eta Berazubi artean zubia eraikiko dute. 3 metroko zabalera izango du. Oinezkoentzako zubia izango da, baina bidegorria ere izango du.

- Amarotz auzoko urbanizazio birmoldapenaren lehenengo fasea. ■

**Martin Eceizabarrena**  
Instalazio erreforma  
Konponketak  
Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**SANTAMARIA**  
*Ortopedia*

- Garabi eta aulki elektrikoak erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

**SHANTI**  
kirolak  
Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

**ANOETA >>>** FRANCO, ANOETAKO OHOREZKO ALKATETZATIK KENDU DUTE BIKTIMEKIKO BEGIRUNEAGATIK

## Franco ez da ia Anoetako ohorezko alkatea

*Milaka gorputz bide bazterrean utzi eta beste horrenbeste familiei berebiziko sufrimendua eragin zien gerra hura amaitu zenetik 70 urte igaro dira. Sarraski guzti haren erantzulea, Francisco Franco hil zela berri, 34 urte beteko dira aurten, eta oraindik ere, Franco, Gipuzkoako herri askotako ohorezko alkatea da. Anoetan, otsailaren 5eko osoko bilkuran onartu zuten generala kargu horretatik kentzea.*

Leire Zubeldia

**A**noetako udalean beste ikerketa lan batzuk egiten ari zirela konturatu ziren Francisco Franco Bahamonde herriko ohorezko alkatea zela. Hori jakin bezain agudo hasi ziren diktadorearen arrastoa udaletik kentzeko lanean. “Ez da itxurazkoa oroimen historikoa berreskuratzeko ahaleginetan gabiltzan honetan, era honetako figura bat ohorezko alkate gisa mantentzea”, dio Periko Peñagarikano Anoetako alkateak. Generala kargutik kentzeko mozioa prestatu, eta otsailaren 5eko osoko bilkuran onartu zuten aho batez. “Gerra eta honen ondorengo diktadura pairatu zuten herritarrak bizirik daude oraindik. Horrenbeste sufrimendu eragin zien gizona oraindik ohorezko alkate izatea iraingarria da eurentzat. Biktimei zor diegun begiruneagatik kendu dugu kargutik”.

2000. urtean, babes ofizialeko etxebizitza batzuetan zeu-

den Falanjeko plakak kendu zituzten Anoetan. Ezustean ohorezko alkate karguaren berri izan dute, eta hau eza-

gauzak nola gertatu ziren jakiteko. Baina biktimei diren aldetik, eskubide osoa dute egia jakiteko, eta beraien alde

tu zuen bezala, estatuak ere gauza bera egin beharko luke frankismoko biktimei aurrean.

Anoetako Udalak, bere aldetik erregimen frankistaren garaia bizi izan zutenekiko begirunea erakutsi nahi izan du. Azken batean, “herritar guztiak sufritu zuten gertakari hura, beraz, Udalari ere badagokio oroimen historikoa berreskuratzearen betebeharra”.

### 1949KO ABUZTUAK 12

Egun horretan ondorengo erabakia hartu zuen Anoetako udalbatzak: “se acordó por unanimidad nombrar Alcalde honorario del Ayuntamiento de este Noble y Leal municipio de Anoeta al Excmo. Sr. Don Francisco Franco Bahamonde, Jefe del estado Español y Jefe Supremo del Glorioso Movimiento Nacional”. Hau ez zen Anoetan emandako kasu aislatua izango. Egungo udaleko ordezkarien ustez, Francok Gipuzkoako eta ziurrenik Estatuko herri guztietan emango zuen agindu bera. “Urte hartako abuztuan diktadorea Donostiara etorri zen oporretan, eta alkate guztiak, agiria eskuetan zutela egin zioten bisita Aieten”. Beraz, pentsatzekoa da, eskualdeko gainontzeko herrietan ere Franco ohorezko alkate karguan egongo dela oraindik. “1949ko abuztutik aurrerako plenoetako aktak begiratu besterik ez da egin behar ohorezko alkate izendatua izan ote zen jakiteko”. Anoetako alkateak, ikerketa txiki hori egitera animatu nahi ditu bailarako udalak. ■



1949an, Gipuzkoako alkateek Donostian Francori egin zioten bisitaren berria.

batuta, dagoeneko, herrian ez da diktadorearen arrastorik geratzen.

### BIKTIMEKIKO BEGIRUNEA, ETA EUREN ESKUBIDEEN AITORTZA

Franco generala ohorezko alkatez kargutik kentzeaz gain, udalbatzak onartutako mozioan, gerra pairatu zuten biktimei zor zaien begirunea aitortzea eskatzen dute. Anoetako alkatearen hitzetan, “oraindik ere, frankismoko biktimek zailtasunak dituzte

errebindikazio hori egin behar genuela iruditzen zaigu”. Haratago joanaz, “biktimek ordain moral eta ekonomikoa jasotzeko duten eskubidea” aldarrikatzen du udalbatzak. “Indemnizazio eta aitortza hauek egitea Estatuari dago-kio, besteak beste, gerra eta diktadura garaian egindako sarraskiak, estatu krimenak izan zirelako, eta errepresioa instituzionalizatua zegoelako”. Peñagarikanoren hitzetan, Alemaniak Europar parlamentuan barkamena eska-

**ANOETA >>>** ARGAZKI ETA BIDEO BILKETA EGITEN ARI DIRA UDAL ARTXIBOAN GORDEZKEKO

## Argazkiekin herriko oroimena osatuz

*Irudi zaharrak gaur baliagarri diren bezala, gaurkoek ere balio handia izango dute bihar. Horregatik, herriko argazki eta bideoak bildu eta datu base bat sortzen ari da Udala. Bilketa lana hasi besterik ez da egin; agiritegi ezberdinetan arakatzeko ibili ondoren, herritarrei egin die deia etxean dituzten argazkiak utz ditzaten.*

Leire Zubeldia

**D**agoeneko 350 argazki inguru dituzte datu basean. “Baina hau ez da amaiera, abiapuntua baizik”, diote Anoetako Udaleko kultura saileko ordezkariak. Herritarrek etxean dituzten irudi grafikoak (argazkiak eta bideoak) jasotzeko epea zabaldu dute orain. “Denok ditugu argazkiak etxean. Gertatzen dena da, norberaren argazkiak zerbait pertsonal edo intimo bezala hartzen direla. Herriko testuinguruan ez dutela balio iruditzen zaigu”. Hain zuzen ere horri eman nahi diote garrantzia. “Herriko oroimen komuna, pieza txikiz osatutako mosaiko handi bat da, eta denek egingdako ekarpenarekin eraikiko dugu herriko oroimen kolektiboa”. Udaletxera ekarri, eskaneatu eta datu basean gorde

ondoren, emanda bezala itzuliko dituzte argazkiak.

### ARGAZKIA, IRUDI BAT BAINO ZERBAIT GEHIAGO

Bildutako irudi grafikoak, espreski egitasmo honetarako sortutako aplikazio informatiko batean gorde dituzte. Hain zuzen ere, oinarri hau sortzea

“Hau da: argazkia datu basean kokatzeko, gaiaren, (baserria, haur-jokoak, generoa...) topónimoen (mendia, etxea, kalea, auzoa...) edo herriko pertsonaien arabera sailkatu dituzte. “Horrela, argazkiaren bilaketa errazagoa izango da”. Baina horretaz gain, sistema honek badu beste abantailarik: Argaz-

Anoetan; horregatik tresna aparta da herriko oroimen kolektiboaren mosaikoa osatzeko.

### HISTORIATIK OROIMENERRA, HUTSUNEA BETEZ

2000. urtean Aranzadi Zientzia Elkarteari Anoetarekin zerikusia zuen dokumentazioa biltzeko eskatu zitzaion. Guztira, 4600 dokumentu ezberdin aurkitu zituzten. Hauek, zientzia elkarteak eta Udalak argitaratu dituzten bi liburuetan bildu dira. “Baina dokumentu hauek ondo sailkatu gabe geratu ziren bate-tik, eta bestetik, herriko argazkiak ateratzen dituen jende dextente dago, baina irudi horiek gordetzeko sistema zentralizaturik ez genduen”. Herriaren historia arakatzeko hasi zirenean, ohartu ziren dokumentazioa txukun jasota edukitzea oso garrantzitsua dela.

Egitasmo hau, herriko irudi grafiko eta bideoak biltzeko udalak egiten duen ahalegina da. Argazki zein bideo zaharrak eta berriak, denak bildu nahi dituzte. “Otsailaren 14ko Dantzakoko argazkiak ere sartu ditugu, gertakari txiki guztiak baitira historikoak”. Behin aplikazio informatikoaren oinarria edukita, hau elikatzeke ohitura hartzea errazagoa izango dela uste dute. “Artxibo bizia izatea nahi dugu”. Bai argazkiak hartzeko, eta noski, baita emateko ere. ■



izan da lanik nekezena; baina aldi berean, eraginkorra izango da. “Mota honetako datu baseetan ohikoa izaten da argazkiaren deskribapena jartzea. Guk, deskribapenari baino deskriptoreei eman diegu garran-

kia, dagokion testuinguruan jartzen da. “Argazkia ez da irudi estatiko bat soilik. Atzean bizia dago, informazioa dago, eta hori irakurtzeko testuinguruan jarri behar da”. Argazkiak oroimena ebokatzeko duela uste dute



Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA



**CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**  
N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

**TOLOSA >>>** BERDINTASUN SAILAK, HERRITARREN KEZKEI ERANTZUTEKO HAINBAT EGITASMO JARRI DITU MAR

# 943.57.22.22. larrialdien aurrean er

*Emakumeen aurkako indarkeria kasuak direla eta kezka handia dago gizartean, baita Tolosan eta eskualdean ere. Kezka horiei erantzuteko lanean ari da Tolosako Udaleko Berdintasun saila. Hainbat egitasmo martxan jarri dituzte. Horietako bat da larrialdien aurrean berehalako laguntza jasotzeko telefonoa.*

Leire Zubeldia

Herrian eta oro har gizartean emakumearen segurtasunaren inguruko kezka nagusitzen ari da. Onintza Lasa, Tolosako Berdintasun zinegotziak eta Josebe Iturriotz berdintasun teknikariak kezka horren aurrean zerbait egiteko gonbita jaso dute eragile eta herritar ezberdinengandik. Gauzak horrela, ekintza ezberdinak prestatu dituzte. Zergatik? “Politikoei dagokigulako tresnak ematea emakumeek autonomia izan dezaten euren bizitza askatasunez garatzeko”. Hori da, epe motzera, ertainera eta luzera antolatuta dituzten egitasmo ugarien helburua.

## 943.57.22.22 BURUZ JAKIN BEHARREKO ZENBAKIA

Aspaldidanik zuten buruan, larrialdien aurrean berehalako erantzuna emateko telefono zenbaki bat jartzearen ideia. Hala ere, Iturriotz eta Lasak, Bilgune Feministako kideei eskertu nahi izan die, ideia hau gauzatu zedin eman duten bultzada. Telefono zenbaki hau jada martxan dago. Kanean zoazela, momentu



Josebe Iturriotz berdintasun teknikariak eta Onintza Lasa, berdintasun saileko zinegotziak prentsaurrean aurkeztu zituzten neurriak.

larriaren batean aurkitzen bazara, edo norbait erasotua izaten ari dela ikusten baduzu erabili beharreko telefonoa da hau. “Horregatik, beste larrialdietarako telefono zenbaki guztiak bezala, haue reburuz jakin behar da”. Zenbaki hau Tolosako udaltzaingora dago konektatua. Neurri honekin, egoera larri batean aurkitzen denari berehalako laguntza ematea bilatu nahi dute. Egunekeo 24 orduetan eta urteko 365 egunetan egongo da zabalik telefono hau. Dagoeneko erabili dai-teke.

## SENTSIBILIZAZIOA

Larrialdietarako telefonoa jartzeak ez du ezertarako balio gizartea sentzibilizatzen ez bada. Berdintasun sailak, epe ertainera gauzatu den sentzibilizazio plana jarri du mar-

txan. “Gizon eta emakumeen arteko errespetuzko harremana da jorratu behar duguna”. Batez ere nerabeekin egingo dute lan. “Tolosako ikastetxe guztiakin jarri gara harremanetan, eta bertako ikasleei berdintasunean hez-teko formazioa eskaini diegu”. Gustura daude ikastetxeetatik jaso duten erantzunarekin.

Ekintza guzti hauetaz gain, Tolosako indarkeriaren aurkako protokoloa lantzen hasiak direla iragarri dute. Otsailaren 17an, emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean aditua den Norma Vazquez-en bisita jaso genuen Tolosan. Hain zuzen ere, bera da Tolosako protokoloa egingo duena. Hori ordea epe luzerako egitasmoa da. Aurtentzen diagnostika egingo dute, eta 2010ean diagnostiko horretatik abiatuta osatuko

dute indarkeriaren aurkako protokoloa.

## INAUTERIETAKO KANPAINA


“Festa eta errespetua bateagarriak dira”. Aurtengo Inauterietako kanpaina berezi bat diseinatu dute. 2008ko Inauterietako kanpainen irudian, mutiko bat agertzen zen neska bati ipurdia ukituz. Aurtengoan, iazko irudia mantendu eta bigarren irudi bat gehitu diote. Bi mutiko agertzen dira astoz jantzita. “Egiten dugun galdera zera da: nor da astoagoa?”.

Bestalde, ezaguna da Berdintasun sailak. Horretarako, eta iaz hasitako ohituari jarraituz, kanpaina berezi bat diseinatu dute.

Bestalde, ezaguna da Berdintasun sailak. Horretarako, eta iaz hasitako ohituari jarraituz, kanpaina berezi bat diseinatu dute.







# Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak

*PC seguruago bat  
izateko trikimailuak*

Oria kalea, 14-behea Tolosa • Tel.: 943 676 156 • Faxa: 943 016 857 • tolosabit@facilnet.es • www.tolosabit.es

**M**undu perfektu batean ez lego-ke delinkuentziarik, baina mundu inperfektu batean bizi gara, non istripu ugari gertatzen diren, eta gure dispositibo ezberdinak kaltetuak gertatzen diren.

Segurtasun arazoan aurrean, prebentziorako eta babesarako neurriak hartu behar dira. Ohikoan segurtasunerako hartzen diren neurri gehienak eraginkorrak izaten dira, naiz eta norberak, era intuitiboan hartu.

Salbuespenik ez bada, ohiko formulak nahikoak izaten dira, gure ordenagailu, argazki kamera, edo eta mugikorrak hautsi edo galdu ez daitezten. Nahikoa da zentzuz jokatzea hauek ondo zaintzeko. Ez utzi edozein lekutan, are gutxiago leku publikoetan. Ez eman zure ordenagailua ezezaguneri, eta lekuz mugitzeko, erabili estalki egokiak. Kontuz ibili baita ere mugimenduan hartu ditzaketen kolpeekin, hezetasunarekin eta gure inguruan ditugun bestelako arriskuekin.



## TRIKIMAILU ETA AHOLKUAK

Lehenengo gomendioa, eta ia esan beharrik ez dagoena, zeure ordenagailua ondo zaintzea da, eta bere segurtasuna arriskuan jarriko duten akatsak sahiestea. Esate baterako, leku publiko batean, ordenagailua bakarrik ez uztea.

Euskal Party-aren moduko informatika topaketa batetara bazoaz, eros ezazu Kensington Lock motako kable bat portatilarentzat. Honekin bateragarriak diren beste

segurtasun dispositiboak ere baliagarriak izan daitezke. 40 euroko prezioa dute merkatuan.

Salbapantailako pasahitza aktibatu, sesioa berriro hasiterakoan zeu ez zaren erabiltzaileak zure ordenagailuan sar ez daitezten.

Ordenagailuan dituzun datuen segurtasun kopia egin eta tarteka eguneratu.

Segurtasun modurik onena, hardwarean encriptaturiko dispositibo integratua edukitzea da. Era honetan, eraso

arriskua ekiditen da.

Enkriptaziorako hardware jakinik ez baduzu, artxibotan gordetako informazioa kodifikatzen duten softwareak daude. Egokia izan daiteke truecrypt izenekoa. ([www.truecrypt.org](http://www.truecrypt.org))

Ez eraman inoiz gainean unitateen enkriptazio sistemaren pasahitzik. Saiatu baita ere, enkriptatutako artxiboak begibistan ez edukitzen.

Hatz-marka irakurgailua izanez gero, erabili dezakezu.

## IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak  
Zilar gaietan berezitasuna  
Diseinuko zilarra  
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia  
TOLOSA • Tel.: 943 674 615

## IBARRA

Argi-Lanak

Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60



## Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak

Ordenagailu eta mugikorrak  
Ezgarri eta portatilaletarako  
segurtasunak

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es



# Antton Karrera

## “Jubilatu egingo naiz, ez erretiratu”

LEGE BILTZARKIDE IZATEARI UTZIKO DIO ANTTON KARRERAK

Leire Zubeldia

**B**aserrian jaiotakoa zara eta injeneritza agronomoan lizentziatu zinen gainera. Nola egin zenuen mundu horretatik politikarako saltoa?

Ni ikaslea nintzela ere politikan sartuta negoen. Iruñean egin nituen ikasketak. Baserriko semea naiz. Anai-arreba asko izan ginen gainera. Ikastekak ez nituen oso gazterik hasi. Batxilergoa libretik egin nuen lanean nembilen aldi berean. Gero, Iruñeara joan nitzen karrera egitera. Frankismo garaia zen, eta borrokan aritu ginen erregime-

**Amezketako Lizeaga Baserrian jaiotako Antton Karrera 1943an. Politiko moduan egin da ezaguna, baina sindikalgintzan eta baserri munduan ere gogor egin du lan. Herri honetako historiaren orrietan geratu diren gertaera politiko askoren lekuko izan da. Ezker Batua alderdian eta euskal erakundeetan ardura ezberdinak izan ditu. Ardur horietako batzuk, behintzat, aurki utziko ditu, zortzi urtez legebiltzarkide izan ondoren, hurrengo legealdian ez baita Gasteizko parlamentuan egongo. Bere ibilbide oparoa errepasatu, eta bide batez, martxoaren 1eko hauteskondeez hitz egiteko, Ezker Batuak Donostian duen egoitzara hurbildu da Galtzaundi.**

naren aurka. Iruñeako ikasle mugimenduan parte hartu nuen. Ez hori bakarrik: Iruñean, langile komisioak sortu ziren, eta langile komisio horien sortzai-

leetako bat naiz ni. 1963. urtean gertatu zen hori guztia.

Karrera amaitu eta Arrasateko Kaja Laboralean hasi nintzen lanean teknikari moduan. Han

nengoela, polizia etorri eta kartzelaratu egin ninduten zazpi urtetarako.

**Fraisoro nekazal eskolan urteak eman zenituen lanean; irakasle bezela aurrena, eta zuzendari gisa gero. Nola gogoratzen dituzu garai haiek?**

Kartzelatik atera nintzenean zabaldu zuten Fraisoroko nekazaritza eskola. Irakasle bezala plazak eskaini zituzten. Oposaketara aurkeztu nintzen eta plaza atera nuen. Diputazioak deitu zituen oposaketa haiek. Diputazioa oraindik frankista zen. Ez ziren konturatu ni kartzelatik atera berria nintzela, eta hartu egin

(hurrengo orrian jarraitzen du)

ninduten. Gerora, ordea, konturatu egin ziren, eta ukatu egin zidaten lan postua. Nik errekurritu egin nuen, eta arrazoia eman zidaten. Lehenik irakasle bezala ibili nintzen, eta gerora, beste hamasei urte egin nituen zuzendari moduan. Guztira, 25 urte eman nituen Fraisoron.

**1970. Urtean Burgosko prozesuan epaitua izan zinen, ETAko beste hamabost lagunekin batera. Herri honen historiaren parte ere bazara Antton!**

Abenduaren 3an hasi zen epaiketa eta hiru aste iraun

**Epaituak izan zineten kideen artean, gerora oso norabide ezberdinek hartu zenituzten. Badira horien artean, Mario Onandia bezela, alderdi sozialistan bukatu zutenak. Beste batzuk herriz, Ezker Abertzale-  
ra lerratu ziren, Jokin Gorostidi bezela...**

Garai haietan, gizarte mugimendu indartsua zengoen frankismoaren kontra eta demokraziaren alde. Gazteriaren artean izugarritzko sua zegoen. Hamasei lagun ginen epaiketan, eta gauzak aldatuz joan ziren neurrian, bakoitzak bere tokia egin zuen. Urte haietan denak batu-

batera. Askok pentsatzen dute ni politiko profesionala naizela. Ez nuke hori esango. Politika egin dut, eta sindikalgintza egin dut, baina teknikoki nire postuan mantenduta. Soilik azkeneko zortzi urte hauetan irabazi dut nire soldata politikan jarduteagatik. Donostiko zinegotzi izan nintzenez ere, ez nuen kobratzen. Fraisoron nuen nire lan postua eta bertatik irabazten nuen eguneroko ogia. Gizarte hau aldatzeko beharrezkoa da ideologia bat izatea, eta nire ustez, soilik ezkerretik bultzatu daiteke aldaketa hori. Horretarako,

*“ Askok pentsatzen dute ni politiko profesionala naizela. Ez nuke hori esango. Politika egin dut, eta sindikalgintza egin dut, baina teknikoki nire postuan mantenduta. ”*

dira, baina nik uste dut handiagoak eman zitezkeela. Trantsizioan ez zen Frankoren erregimenarekin apurtu: Epaileak, poliziak... lehengo berberak jarraitu zuten, nahiz eta gauza batzuk aldatu. Frankismoa faxismoa zen, eta horren protagonistak izan zirenak horrenbeste urtetan hor jarraitzea... Hori ez da beste inon gertatu.

Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan sarraski izugarriak gertatu ziren. Pertsona asko geratu ziren bide bazterrean hilik... Horien hezurak bildu gabe daude oraindik. Non dauden ere ez dakigu. Memoria borratu egin da. Hori, trantsizioa gaizki egin delako gertatu da. Konstituzioan ere gauza asko sartu ziren, nire ustez, gaurko egunean aberranteak direnak, onartezinak direnak. Horregatik diogu konstituzioa aldatu egin behar dela. Baina inor ez da ausartzen. Behar beharrezkoa da ordea, eta gaur edo bihar aldatu egin beharko da, nahi eta nahi ez.

**Azken bi legealditan parlamentuan zure taldeko bozeramala izan zara. Zer moduzko lana da legebiltzarkide izatearena?**

Askotan gauza asko errepikatu egiten dira. Gai bera agian zortzi edo hamar aldiz eztabaidatu dugu laurtekoan. Azken bi legealdietan guri tokatu zaigu gobernuko sail baten arduraria izatea. Guk proposamenak eman ditugu, eta onartu egin dira gainera. Gauza onak egiten dira legebiltzarrean, baina inora ez doazen gauzak ere bai, eta asko

zituen. Historian geratu da epaiketa hori. Guk han eduki genuen posizio ausarta, gerora gogoratua izan da. Zazpi urte denbora dexente da kartzelan egoteko, baina niri kartzelan denbora faltatu zitzaidan. Eguneroko administratzen genuen denbora. Plan asko egiten genituen. Barruan ez nuen asperetzeko denborarik izan. Nik hori diot, eta nirekin egon zirenek ere hala diote. Horrek noski, ez du esan nahi kartzelan denbora gehiago emango nukeenik...

ta egotearen arrazoia, frankismoaren aurkako borroka zen.


**ETAren VI. Biltzarraren ondoren, erakundea utzi eta LKIn sartu zinen...**

LKIn egon nintzen denbora batean. Arrazoi politikoengatik utzi nuen gero. Sindikatu mailan ere lan egin dut. Diputazioan, hauteskunde sindikaletan aurkeztu nintzen; bi legealditan komiteko buru bezala, gainera. Hor ere lan handia egin genuen, eta gauza interesgarriak atera genituen aurrera. Politika eta sindikalgintza: Bi gauzak egin ditut

ideia hau erakunde eta instituzioetara eramane behar da. Hori egin dut nik, edo horretan saiatu naiz behintzat, baina nire lan teknikoa utzi gabe.

**Trantsizio garaian, zer da gaizki egin zena, bizi dugun gatazkak oraindik ere iraun dezan?**

Gauza asko egin ziren gaizki. Trantsizio garaian gauzak aldatuko ziren ustea genuen. Gizarteari itzuli handi bat emango zitzaioala pentsatzen genuen. Orain gizartea askoz ere hobeto bizi da, pauso handiak eman





gainera. Hori gertatzen da, batzuk, komunikabideak erabiliak, euren ideiak behin eta berriz gizarteratu nahi dituztelako.

### **Eta "Zergatik kritikatzeko ote zaituztete hain gogor?"... Hori dio zuen kanpainaren leloak...**

Legebiltzarrerako hauteskunde egin aurretik askotan esan dugu hori. Gu oso kritikatuak izan gara: batez ere, eraikuntza enpresengandik. Gukuste dugu, kritikatzeko gaituztela, egin ditugun gauzek min egin dietelako. Haiek kritikatuak ez baligukete gauzak gaizki egin ditugun seinale litzateke. Ezkerreko politika egiteagatik kritikatzeko gaituzte, euren interesen kontra egin baitugu.

### **Kritikak ordea, ez datoz kanpotik bakarrik... Azkeneko hilabeteotan, zuen alderdi barrutik ere sortu dira.**

Egia da, baina hor ere interesak daude. Gure asmoa ez da kritika horiei erantzutea. Baina askotan, oso zentzu gitxiko kritikak izan dira. Politikan pertsonalismo handia dago. Uste dute denak direla gai gauza guztiak egiteko, baina pertsonak hautatu egin behar dira, eta batzuk ez dira hautatuak izaten. Hautatzen ez diren horiek minduta sentitzen dira maiz. Gure erakunde an gehienok erabakitzen du, eta erabakitzen den hori errespetatu egin behar da.

### **Ezker Batuak ezkeragorantz jo beharko lukeela esaten dute. Gobernuan egoteak desgasteren bat suposatzen al dizue?**

Hori beti gertatzen da. Gobernuan egotean, gustatzen ez

zaizkizun hainbat gauza tragatu behar ditugu: Ingurugiroan hartu diren erabakiak, zergen gaineko erabakiak... Gu ez gaude horiekin ados, kontra gaude, baina gobernuak egin egiten ditu. Guk, batzuetan, ezkerreko politika praktikara eramatea, legetara eramatea lortu dugu. Hori interesgarriagoa da, kan-

poan begira geratze baino, ezta? Gauza batzuk nola egin diren ez zaigu gustatu, baina ahal izan dugunetan ezkerreko ikuspegi hori sartu dugu. Gizarteak ez du aurrera egiten gauetik goizera. Pixkanaka eman behar dira pausoak. Askok esaten dute jokaera posibilista dugula. Egia da: hala jokatzeko dugu, baina uto-

pia ahaztu gabe, nora iritsi nahi dugun presente edukiz.

### **Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburutzaren ardura nagusia izan du Ezker Batuak. Gustura eginda-ko lanarekin?**

Hogeita bost urteetan bost proiektu aurkeztu dira lurzoruen legea onartzeko, eta orain arte,

## Antton Karrera, M1eko hauteskundeetaz

### **Badirudi hauteskunde kanpaina polarizata datorrela. EAJ eta PSE-EE, bi indar nagusiak izango dira. Alderdi txikiagoei kalte egingo al dizue horrek?**

Bai. Polarizazioak eta komunikabideek kalte egiten digute. Jendeak pentsatzen du jokoan dagoena lehendakaria nor izango den dela. Hori inportantea da, baina garrantzitsuena, hurrengo gobernuak zer egin behar duen jakitea da. Hori jendeak ez du gogoan hartzen. Gizartearen ongizatea lortzeko, gobernuak egin behar duena arazoei irtenbidea aurkitzea da. Horregatik saiatzen gara gu programan gai sozialak sartzen, nahiz eta horrela, ohiartzun handirik lortu ez.

### **Nola eragin dezake Ezker Abertzalea legebiltzarrean ez egoteak?**

Guretzat, onartezina da hori. Beti egon gara alderdien legearen aurka. Parlamentuan saiatu ginen horren aurka egiten, baina EHAKrengandik ez genuen babesik lortu. Udal hauteskundeetan ikusi genuen zer egin zuten ANVko zerrendekin: Interesatzen zitzairen lekuetan aurrera egiten utzi, eta interesatzen ez zitzairenetan atzera bota. Orain, badirudi ez zaiela intere-

satzen Ezker Abertzalea hauteskundeetan egotea. Ideia guztiak onartu behar dira eta hautesleak erabaki behar du. duena.

### **Gobernuan egon liteke berriz ere Ezker Batuak? EAJrekin, PSE-EErekin?**

Emaitzak nolakoak diren jakin gabe aurretik fikzioa egiteak ez du ezertarako balio. Errealitatean oinarrituta egin behar dira akordioak. Gu PNVrekin egon gara gobernuan, baina gure programarekin. Bi legegintzaldietan mahai gainean jarri diegu gure programa eta hori izan da gobernuan sartzeko baldintza. Orain berdin egingo dugu: Ezkerreko gauzak, aurrerapauso interesgarriak baldin badaude, eta mahai gainean jartzen ditugunak onartzen badituzte, gu prest gaude gobernuan egoteko. Hori da baldintza. Akordiora iristen ez bagara, ez gara sartuko.

### **Edozeinekin osatuko zenukete gobernuak?**

Alderdi Sozialistak dio eurek bakarrik gobernatu nahi dutela, eta gai bakoitzean akordioak lortzen saiatuko direla. Orduan, zaila ikusten dut.

### **J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK**



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

### **ZALBIDE**

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunerok.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel.: 943 652 176

### **Joseba Iturgintza**

600 561 782

Iturgintza • Gasa • Berokuntza



**ONAK**  
MARMOLAK, S.A.

**Mota guztietako lanak:**  
Granitoan marmolean eta  
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Saila, 1 • URNIETA  
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

inor ez da gai izan legea aurre-  
ra ateratzeko. Lege oso aurre-  
rakoia da. Izugarritzko baliabi-  
deak eskaintzen dizkie udaletxe-  
ei etxebizitzaren beharrei eran-  
tzuna emateko. Hori egiteko gai  
izan gara, eta gaurko egunean  
lege hori eredutzat hartu da.  
Berdin gertatzen da zerbitzu  
sozialerako legearekin. Lehen,  
Diputazioek autonomia zuten  
alor horretan. Alde horretatik,  
izugarritzko ezberdintasunak  
zeuden probintzia bakoitzean.  
Orain unibertsalizaturik dago.  
Lege honekin, ezindurik dau-  
denek, laguntza exijitu deza-  
kete administrazioen aurrean.  
Legeak eskatzen duen zaintza  
hori emateko, milakak lanpos-  
tu sortu beharko dira.

#### Arantzaren bat geratu zaizue?

Bai. Etxebizitzaren legea  
gubernuan onartuta geratu zen,  
baina ez da denborarik egon  
legebiltzarrean eztabaidatze-  
ko. Lege proiektu honek esku-  
bidea ematen dio herritarriari,  
administrazioari etxe bat exi-  
jitzeko. Ez jabetza pribatuan,  
alokairu sozialean baizik. Bako-  
itzak duen soldataren arabera  
ordaindu beharko luke alokai-  
rria. Hor atzean, izugarritzko  
intesak daude, eta hala ere,  
egin dugu. Aurrerapauso izu-  
garria da hau.

#### Kepa Junkerari bideratu zitzaion diruaren zati bat, zuen sailetik zeto- rren. Musikarien artean, kritikak gogorrak jaso ditu laguntza horrek. Zer duzue esateko?

Laguntza hauek kultura  
departamenduak ematen ditu,  
baina gizarte sailean, interkul-  
turalitatea ere lantzen dugu.  
Orain aurkeztu dena proiektua-  
ren lehenengo zatia da. Hiru  
fase ditu egitasmoak. Gober-  
nuak oso gustura hartu zuen  
Junkeraren egitasmoa. Interkul-  
turalitatea eta euskara indar-  
tzeko egokia zela iruditu  
zitzaion. Horregatik emango  
zaio laguntza. Denborak juz-  
gatu du dirulaguntza horiek

ondo eman diren edo ez. Diru  
gutxiago jaso duten artistak  
minduta egotea ulertzen dut,  
eta arrazoia izan dezakete. Bai-  
na proiektu hau amaitzen dene-  
an, euskararentzako, euskal  
kulturarentzako, eta gure  
herriarentzako, proiektu oso  
ona izango dela iruditzen zait.  
Kritikak onartzen ditugu, bai-  
na ikusten dugu, gauzak egin  
egin behar direla, eta proiektu  
interesagarriak aurkeztuz gero,  
lagundu egin behar zaiela; honi  
eta beste edozeini.

#### Hurrengo legealdian, egoera eko- nomiko larria izango da ardatze- tako bat. Ezkerreko alderdia iza- nik, zein politika bultza liteke era- kundeetatik egoera honi buelta emateko?

Estatu zentralak ditu kom-  
petentzia asko, baina hemen-  
go gobernuak ere baditu esku-  
men batzuk. Guri gustatuko  
litzaiguke, jendeari laguntze-  
ko eta zulotik ateratzeko ban-  
ku publiko bat sortzea. Ego-  
era ezin da enpresa pribatuen  
eta banku handien esku utzi.  
Horiek euren irabaziei begi-  
ratzen diete soilik. Gure nahia  
da, banku publikoaren bidez,  
governua, eta herri guztiaren  
kontrolarekin, behar bezala-  
ko erantzuna ematea. Jende-  
ak dio bankuek krediturik ez  
dutela ematen, baina dirua  
badago. Enpresa txikiak izu-  
garrizko beharra daukate: Ez  
lanik ez dutelako, baizik eta  
euren funtzionamendurako  
diru likidoa falta dutelako.  
Gobernuak egin beharko luke-  
ena da, banku publikotik  
enpresa horiei kreditua eman  
aurrera atera ahalizateko! Zer  
da bankuei dirua oparitzea-  
ren kontu hori? Bankuek izu-  
garrizko sarraskiak egin dituz-  
te, dirua alferrik galdu dute,  
gaizki gastatu dute, eta gaine-  
ra dirua eman behar zaie?  
Horrek ez du zentzurik. Ban-  
ku publikoa egin behar da eta  
gero gobernuak, eta herriak  
kontrolatu behar du. Krisiari



erantzuteko biderik egokiena  
da. Hori egin beharko litzake.

#### Normalizazio politikoari dagokio- nez, zuk ezagutu dituzu, gertutik gainera, Lizarra Garaziko akordioa, azkeneko Loiolako prozesua... Zein da aurrera egiteko hurren- go pausoa?

Erabakitze eskubidearen  
alde jarraitu behar da borro-  
kan. Eta hori konstituzioak egi-  
ten du zaila, gaizki egin zen  
trantsizio horrek. Oso zaila da,  
baina horretan jarraitu behar  
dugu.

#### Legebiltzarreko kideak agurtu al dituzu?

Bai. Azkeneko bilkuran agur-  
tu egin nitzen, esanez, han  
nengoen azkeneko aldia zela.  
Zortzi urte eman ditut Gastei-  
zen lanean, eta orain beste gau-  
za batzuk egin nahi ditut.

Hurrengo legebiltzarreko  
mahaia osatzen den egun bere-  
an jubilatuko naiz. Jubilatu bai,  
baina ez naiz erretiratu. Hor  
dago diferentzia. Orain politi-  
kagintzan egiten ditudan gau-  
za batzuk utziko ditut, gustu-  
ko ditudan gauzak egiteko tar-  
te gehiago hartuko dudalarik.

#### Gipuzkoako Ezker Batuko koordi- natzaile izaten jarraituko duzu?

Oraindik bai. Trantsizioa  
egin arte egongo naiz.

#### Bizimodu lasaiagoa izango duzu aurrerantzean. Zertarako hartu- ko duzu denbora martxotik aurre- ra?

Azkeneko urteetan, politika  
hain intentsoa izan da, ia ez  
naizela kanpora atera. Hori  
egingo dut, eta irakurtzeko eta  
mendira joateko denbora gehi-  
ago hartuko dut. ■

# Galtzaundiko kultur ekitaldiak

Idoia  
Sanchez  
Martxoak 3  
ANOETA  
18:30etan  
liburutegian




Kultur Errota  
Martxoak 7  
ANOETA  
18:00etan pleno aretoan

Idoia  
Sanchez  
Martxoak 12  
ALKIZA  
17:00etan  
liburutegian



Pirritx eta Porrotx  
Martxoak 14  
TOLOSA  
Leidor antzokian  
6€ sarrerak  
Bi saio: 16:30etan eta  
18:30etan  
Sarrerak salgai:  
Galtzaundin, Leidorren  
eta kutxako web gunean



Idoia  
Sanchez  
Martxoak 26  
LIZARTZA  
17:15etan  
liburutegian  
OREXA  
18:30etan  
elkartean



Zinema euskaraz  
Apirilak 2  
Film Laburren  
zirkuitua  
20:00etan  
Kultur etxean  
TOLOSA



**galtzaundi**  
euskara taldea

**IPUIN KONTAKETA >>>** IPUIN KONTAKETA ETA IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO EKIMENA JARRI DUTE MA

# Ipuinak, atsegin bezain onuragarriak

*Hiru eta sei urte bitarteko haurrek eta beren gurasoek fantasiaren munduarekin hitzordua izango dute, hemendik aurrera, errota eraikineko haur liburutegian. Miriam Mendoza ipuin kontalariarekin, haurrek ipuin desberdinez gozatzeko aukera, eta gurasoek, ipuinak nola kontatu ikasteko parada izango dute, hileko lehen ostegunetan.*

Gorka Otaegi

**L**orez inguratutako gazteluko printzesaren eta lorezain maltzurra-  
ren arteko gorabeherak, putzura erori zitzaion babarrun alea berreskuratu nahi zuten gizon marokoar mutilzarrari gertatutakoak, asmakizunak... Horiek eta askoz gehiago izan ziren otsailaren 5ean kontalariak kutxa magikotik kriseiluaren argira atera zituen kontuak. Aurrez aurre, ume eta guraso mordoak adi, ipuinen haria jarraituz. Kriseilua itzaltearekin batera amaitu zen ipuin kontaketa, eta une hartan hitz egin zuen Galtzaundik Susana Larre liburuzainarekin eta Miriam Mendoza ipuin kontalariarekin.

Ipuin kontaketa egiteaz gain, saioretan kontaktzen diren ipui-



nen datuekin (izena, argitaletxea, liburutegian duten kokapena...) gida bat ere osatzen dute, eta ondoren, gurasoen artean banatzeaz gain, liburutegiko paretan ere jartzen da ikusgai, interesa duen orok liburuak maileguan har ditzan. "Askotan jendeak oso komertzialak diren liburuak soilik aukeratzen ditu. Ekintza honen bitartez jendeak aukera zabalagoa izatea nahi

dugu" dio Larrek, hots, "irakurketaren kalitatea" bultzatzea. "Normalean, umeak ezagutzen duena bakarrik aukeratzen du (ikastolan edo Walt Disney-ren marrazkietan ikusitakoa...) Baina Miriamek aukeratzen dituen liburuak oso desberdinak dira teknika aldetik, irudiari garrantzi handia ematen zaio...". Gida bakoitzean zortzi ipuin aurki ditzakegu. Dagoeneko seiga-


rren gida atera dute, aurrez ere egin izan dutelako horrelako ekimenik, Tolosan ez ezik, baita beste zenbait herritan ere.

Aurrez aipatu ditugunez gain, liburutegien helburu nagusia "irakurzaletasuna bultzatu" eta "liburutegiko liburuak erabiltzea" delako ere hasi ziren ekintza honekin. Susana Larreren aburuz, "Ipuinak entzuteagatik entzutea ondo dago (...). Baina



*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



**Errrotatxo  
Akademiak**

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038



E MARTXAN TOLOSAKO HAUR LIBURUTEGIAN

# Jarriak



liburuzainok ikusten genuena zen, ahal zenean jarraipenik gabeko ipuin kontaketa bat egiten genuenean, besterik gabe, jendea etorri, umea aparkatu, joan eta ez zuela besterik egiten". Gurasoen jarrera garrantzitsua da aurrez aipatu ditugun helburu horiek lortzeko. Hori dela eta, seme-alabak "aparkatzeaz" gain, "beraiekin etorri eta ipuinak kontatzea erreza dela eta

umeak zeinen ongi pasatzen duen ikusi" behar dute. "Horrekin lortzen dugu, hona etorri, liburuak maileguan hartu eta gero etxean irakurzaletasuna benetan bultzatzea" dio Larrek.

Liburutegiak bere "aurrekontu txikiarekin" antolatu du ekimen hau. Susanak dio Eusko Jaurlaritza eta udaletatik liburuak erosi ahal izateko nahiko diru ematen zaiela liburutegiei. Ez ordea irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak egiteko. "Hori abstraktuagoa denez, diru gutxiago dago, eta biek batera joan beharko lukete. Liburutegi bat zabaldu eta liburuak jartzeak ez duelako ziurtatzen erabiltzaileek hartuko dituztenik. Agian eguraldi txarra egiten duenean arratsaldea pasatzera soilik etorriko direlako. Liburutegia dinamizatu egin behar da. Bestela, fonodan gastatzen denari ez zaio etekinik ateratzen".

Etxean irakurzaletasun hori bultzatzeko eta seme-alabei ipuinak kontatzeko "denbora falta" gaur egungo gurasoek duten eragozpenik handienetakoa dela aipatzen du Miriam Mendozak. "Egun osoa etxetik kanpora pasatzen dute. Hala ere, batzuk hartzen dute kontatzeko tarte". Susanak, berriz, guraso "ni sosoa naiz" bezalakoak esanez joaten zaizkiola aipatzen du. Biak ados daude ipuinak ongi kontatzeko, gakoak "kontatzen ari

zarena sinestu eta paperean sartzean" dagoela. "Bizi egin behar da. Umeak hori jaso egiten baitu". Horrez gain, Larrek Pello Añorga ipuin kontalariak emandako aholkua bere egiten du: "Egun batean nekatuta bazaudete, ez kontatu ipuinik".

Gurasoek aurkitzen duten beste eragozpenetako bat, askotan seme-alabei zein ipuin kontatu ez dakitela izaten da. Honen harira, Miriami kontaketatarko istorioak aukeratu behar dituztenek zein irizpide kontuan hartzen dituen galdetuz, lehenik eta behin, bere gustukoak izan behar dutela erantzuten du. Iru diei garrantzi handiagoa eman beharko geniekela ere azpimarratzen digute Tolosako haur liburutegitik, mezu hau argitalerxei ere zuzentzen dietelarik: "Hemen askotan ateratzen diren liburuak letra asko eta ilustrazio gutxi dutenak izaten dira" dio liburuzainak. Beti arrakastatzen izaten duten zenbait ipuin dau den arren, azken finean, gurasoek ipuina seme-alaben izararen arabera aukeratu behar dute: "Nolako den, adina, hobbieak, irakurle ona den edo ez...".

Seme-alabei ipuinak kontatzen ahalegintzeak merezi duela argi uzten dute honek dakartzan onura mordo zerrendatzean: "Irudimena lantzea; beste mundu batzuetan murgiltzea;

kezkak, sentimenduak eta umeentzako tabu diren heriotza, beldurrak... kanporatu eta lantzea; mundua ulertzea; hizkuntza alorrean hiztegia, gauzak azaltzeko ahalmena... aberastea; hainbat ezagutza barneratzea...".

Euskal haur literaturari buruzko hausnarketa bat ere egiten dute. Alde batetik, kalitateari baino kantitateari garrantzi handiagoa ematen zaiola uste du Larrek: "Asko publikatzen da. Erostea beharra sortzen digute. Baina ipuin onak oso tirada motzak izaten dituzte, eta bi urtean desagertu egiten dira. Onak izan arren, ez dira berriro editatzen. Hori lurralde anglosaxoietan ez da gertatzen (...) Euskaraz publikatzen den guztia diruz lagundu beharrean, kalitateari gehiago erreparatu beharko liokete".

Bestetik, "Euskal idazle asko moralistak" direla uste dute. "Euskal haur literatura euskara transmititzeko erabili izan da, eta zama hori arrastaka darama. Orain literatura gozatzeko behar dugu, ez baloreak, moralak... transmititzeko".

Amaitzeko, argi uzten dute hileroko ipuin kontaketa hauen helburua ez dela ahalik eta ume gehien biltzea, horrek askotan "interferentziak" sor ditzakeelako baizik eta etortzen direnak "gustura" egotea, "arretaz eta gozoz" entzutea..

**Zumardi**  
SEGUROS  
BILBAO

Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martín, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

**JANTZIAR**  
**OSKI**  
eintakoa  
Nafarroa Etorbidea, 11  
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

# Mikel Arruabarrena, sei h

OSASUNTU AURKITZEN DA DAGOENKO MENDI

Amia Goikoetxea O.

**“Futbolari bikaina da, poz handiak emango dizkigu”. Horixe Jaime Barriusok zuri buruz esandakoa. Ez da harrera txarra.**

Ez horixe. Beraien apostu bat izan da, eta baita nirea ere. Ni gehiegi jokatu gabe nengoen Polonian, eta orain, sei hilabete hauetan sekulako aukera daukat. Beraz, horixe espero dut nik ere, pozteko arrazoi asko egotea bai Eibarrentzat eta baita niretzat ere.

**Orain Barriuso joan egin da eta presidente berria duzue.**

**Zer moduzkoa izan da aldaketa?**

**Azken hamar urteak etxetik kanpo pasa ondoren, Tolosara itzuli da Mikel Arruabarrena; Eibar futbol taldeak eman dio horretarako aukera. Gustura dago etxean, baina argi du futbolariaren bizimodua horrelakoa dela, eta orain, geroak ekarriko duenari buruz gehiegi pentsatu gabe, aurrean duen aukerari ahalik eta zuku gehien atera nahi dio.**

Nik uste dut guztiak orain arte bezalatsu jarraituko dela, Barriusoren garaian Aranzabal jada taldean baitzegoen. Badakigu Eibar zein lekutan ibili daitekeen, zenbateko aurrekontua duen..., eta horrekin jokatu behar dugu. Guk badakigu nora etorri garen. Niretzat oso aukera ona da, eta hori aprobetxatu nahi dut.

**Gaizka Toquerok utzitako hutsunea betetzeko nahi omen zaituzte Eibarren.**

**Zer moduz ikusten duzu zure burua erronka horren aurrean?**

Erronka polita da. Dena den, Gaizka Toquerok taldean jarraitu balu ere etortzeko aukera nuen, ez naiz zehazki Gaizkaren ordez etorri.

Baina erronka polita da, bai. Gaizkak gauzak oso ondo egin ditu eta hor izan du orain bere saria, Athletic-era igoz. Nik ere sei hilabete hauek onak izan daitezen nahi dut, bai niretzat eta bai taldearentzat, eta biok irabazten ateratzea.

**Nonbait esan dute denboraldia amaitu baino lehen hamar gol sartu behar ote dituzun...**

Hori ez da egia. Eibarreko jokalar bezala aurkeztu ninduten egunean, zenbat gol sartuko ote nituen galdetu zuten kazetariak, eta nik ezer esan gabe, Barriusok esan zuen: “Hamar gol”. Eta orduan, nik esan nuen: “Ojala”. Badakit zifra hori lortzea oso zaila dela, eta horregatik esan nuen ahalik eta gol gehien sartzea espero nuela, baina inongo momentutan ez nuen kopuru konkreturik aipatu. Barriusok esandako hori titular polita iruditu zitzaien eta halaxe atera zen. Nire gogoan ahalik eta gol gehien sartzea da, eta Eibar orain dagoen egoeratik ateratzea.

**Zer moduz zaude sasoi alde-tik?**

Oso ondo. Polonian egon naizen denboran ez dut gehiegi jokatu, ez naiz ehuneko ehunean egon. Gainera, hotza dela eta denboraldia eten egiten da han, eta hilabete egon naiz oporretan, taldearekin entrenatu gabe. Horregatik, zertxobait kostatzen da.

zait berriz forma hartzea, baina egunetik egunera hobeto nago, eta orain partiduak jokatu behar ditut martxa hartzeko, lehiaketan sartzeko.

**Zer moduz ikusten duzu zeure burua taldean?**

Ondo. Eibarren oso giro ona dago, oso erraz sartzen zara taldean. Bertan gauden guztiok badakigu zer nahi dugun, erakusleihen bat da guztiarentzat, eta Eibar zenbat eta gorago egon, denontzat hobe. Taldean oso ondo hartu naute, denekin oso ondo modaltzen naiz. Aurretik ezagutu ditudan beste taldeetan bakoitzak gehiago begiratzen zion bereari. Hemen talde bat gara, zentzu guztietan, eta denon artean taldea aurrera ateratzea da nahi duguna.

**Eta zer moduz ikusten duzu taldearekin?**

Egia esan azken emaitzak ez dira oso onak izan, eta sailkapeneko behe-aldean sartuta gaude. Baina taldearengan konfidantza dugu, eta lehenbailehen garaipen bat behar dugu; hortik aurrera taldea goruntz joango dela uste dut.

**2006an Xereza joan zinen, gero Tenerifera eta ia Varsoviara; handik etorri berria zara. Zer oroitzapen duzu talde bakoitzari buruz?**

Xerez, lehenengo urtea profesional bezala, eta bigarren mailan jokatzeko lehenengo aukera. Egia esan, urte ona



# hileko aukeraren aurrean

EMENDE ERDIA BETE DUEN TOLOSA JUDO KLUBA



izan zen niretzat, talde ona geneukan. Esperientzia bezala oso ona izan zen, eta ikasi egin nuen. Tenerifen ez nuen gehiegi jokatu, aurretik beste aurrelari bat bainuen, bigarren mailan oso ezaguna zena eta dagoeneko 120 goletik gora daramatzana, eta ez nuen erraza izaten hamaikakoan sartzea. Baina jokatu nituen minutuek eman zuten fruiturik, sei gol sartu nituen. Eta Varsoviari dago-kionez, uste nuen aukera ona zela niretzat. Urbanek deitu zidan, bera Osasunan zegoen ni egon nintzen garaian, eta ilusio handiz joan nintzen. Baina gauzak ez dira espero moduan aterata. Esperientzia bezala balio izan dit, atzerrian, hiri berri bat, ohitura berri batzuk... Baina kirol aldetik gauzak ondo ez doazenean hobe da aldatzea.

## Erraza izan al da Eibarrera etortzeko erabakia hartzea?

Nik garbi neukan jokatzeko

ko talde bat nahi nuela. Eibarraren eskaintza jaso nuen eta berehala hartu nuen erabakia; urtarillaren hasieran sinatu nuen eta hilaren 31ra bitartean beste aukera batzuk begiratzeko astia nuen arren, ez nuen gehiago itxaron nahi izan.

## Bigarren mailan jokatzeko hasi aurreko urteak oso onak izan zirenez zuretzat.

Bai, jubeniletatik Basauriko Baskoniara (Athletic-en filiala) igo nintzen, eta gero beste bi urte Bilbao Athletic-en egin nituen, bertan hamabost gol sartuz. Ondoren Osasuna B-ra joan nintzen, eta han beste hamairu gol sartu nituen. Denboraldi horiek eman zidaten bigarren mailara igotzeko aukera.

## Gipuzkoarra izanik, Bizkaian "hazi" zinen, beraz.

Noizbehinka, asteazken batzuetan, Athletic-ekin entrenatzen hasi nitzen, eta

beste egun pare batean Realarekin ere entrenatu nuen. Athletic-ek nirekiko erakutsi zuen interesa, ordea, handiagoa izan zen Realak erakutsitakoa baino, egia esan oso ondo portatu zen talde bilbotarra urte osoan zehar. Horixe izan zen Bilbora joateko arrazoia, eta ez Athletic-ekoa naizelako edo Realera joan nahi ez nuelako. Real txikitatik jarraitu dut, errealzalea izan naiz eta orain ere banaiz, eta nahi dudana lehen mailara igotzea da. Baina hamasei urterekin erabaki bat hartu behar izan nuen, eta Bilbo aldera joatea erabaki nuen.

## Erreala aipatu duzunez, zer moduz ikusten duzu talde txuri-urdina?

Bere momenturik onenean ez egonda ere partidak aurrera ateratzen ari da, eta hori oso garrantzitsua da.

Beraz, uste dut hobekuntza bat izango duela, urte bukaerara arte hor goran egoteko, eta azken momentuan lehen mailarako jauzi hori emateko. Uste dut aukera asko dituela aurtun igotzeko.

## Hainbeste berdinketekin ere bai?

Berdinketa asko dira, ez ditu bi partida segidan irabazi, baina liderrarengandik oso gertu dago. Beraz, bizipahiru partida jarraian irabazita hor goran geldituko da.

## Bigarren mailakoa oso liga gogorra dela diote.

Bai, gehienbat ez dagoelako taldeen artean ezberdintasun handirik. Edozein talderi irabaz diezaiokezu eta edozein talderen aurka gal dezakezu. Oso futbol lehiakorra da, taktikoa, talde asko ez galtzera ateratzen dira, eta horrek futbola itsusiagoa izatea dakar.

## Gustatuko al litzazuke udan Varsoviara itzuli beharrik ez izatea?

Hori dena begiratu egin beharko da. Orain buruan dudana Eibarren sei hilabete hauek ondo ateratzea da, eta gero ikusiko da. Beti gurturago zaude etxe inguruan, baina oraindik kontratua daukat Polonian beste bi urterako, eta nahi dudana orain gauzak ondo ateratzea da, gero, bai Poloniara joateko edo bai hemen gelditzeko, aukera gehiago izateko, aukeratzeko moduan egoteko. Horretarako sei hilabete hauek aprobetxatu behar ditut. ■

# Otsailaren 20tik martxoaren 6ra arteko hitzak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com) helbidera

## Z I N E A

### LEIDOR

- »» Otsailak 27: La clase filma 22:30ean.
- »» Otsailak 28: Valkiria 19:30ean eta 22:30ean.
- »» Martxoak 1: El reino de los chiflados haurrentzako filma 17:00ean. Valkiria 19:30ean eta 22:00etan.
- »» Martxoak 2: La clase 20:30ean.

## ZINE FORUM

### LEIDOR

- »» Otsailak 26: Las horas de verano filma 19:15ean eta 21:45ean.

## IKUSKIZUNAK

### LEIDOR

- »» OTSAILAK 14, LARUNBATA
  - 10.30 Erraldoi eta buruhandiak. Irteera Plaza Zaharretik.
  - 15.00 Haurren Txantxo Lehiaketa Zentro Sozio-Kulturalean.
  - 16.00 Aiz-Orratz elkarteko txaranga irtengo da elkartetik bertatik.
  - 16.30 Haur Jaialdia, Aiz-Orratz Elkarteak antolatuta, Leidor aretoan. Jaialdian Txantxo Lehiaketako irabazleen berri emango da.
  - 19:00 Kaldereroen Konpartsa aterako da Plaza Zaharretik.
  - 23:30 Incansables txaranga kalez-kale.

## INAUTERIAK 09

### »» OTSAILAK 15, IGANDEA

12.15 Iñauterietako kontzertua, Tolosako Musika Banda eta Udal Txistulari Banda Berdura Plazan.

### »» OTSAILAK 19, "OSTEGUN GIZENA"

- 09:15 "Etxe-berri"-ko oinordekoen Udal Bandoa.
- 11.30 Udal Txistulari Bandak Iñauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
- 11.45 Kabi-Alai elkarteko korporazioaren pregoia.
- 12.00 Plaza Zaharrean, suziria jaien hasiera iragartzeko.
- 12.00 Pintxana eta Kabi-Alai txarangen irteera, Arostegieta kaletik.
- 16.30 Zezen Plazan xexen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek


alaitua. Ondoren, kalejira.  
23.00 Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

### »» OTSAILAK 20, "OSTIRAL MEHEA"

- 12:00 Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
- 16.30 Zezen Plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangek alaituta. Ondoren, kalejira.
- 22.45 Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.
- 23:00 Emakumeen danborrada.

### »» OTSAILAK 21, "ZALDUNITA" BEZPERA

- 10.30 Erraldoi eta buruhandiak. Irteera Plaza Zaharretik.
- 11.30 Kabi-Alai elkarteko txarangen irteera.
- 11.45 eta 17:00, Dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik.
- 17.00 Haur Danborrada aterako da Santa Maria Kaletik.
- 19:00 Tolosako danborradaren irteera Triangulotik.
- 22:30 Berazubiko Danborrada eta Ingeles Goardia kalez kale.
- 23:00 Mulambo perkusio taldearen irteera plaza berritik.
- 23:30 Iraunkorrak eta Oriako txaranga kalez kale.
- 23:30 Plaza Berrian kontzertuak.



### »» OTSAILAK 22, "ZALDUNITA"

- 8.00 Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
- 8.45 Herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginez Iñauterietako Zortzikoa joko du.
- 10.00 Txarangen irteera.
- 10.30 Plaza Berrian sokamuturra.
- 11.00 Karroza eta konpartsen irteera.
- 15.45 Udal Txistulari Bandak "Idiarena" pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea.

- 16.00 Kalejira Sukalde, Alcoyano, eta Urdiña Txiki txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazaraino.
- 16.30 Zezenak Zezen Plazan; txarangek eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.
- 19.00 Dantzaldia Berdura Plazan Sukalde, Alcoyano, eta Urdiña Txiki txarangekin.
- 23.30 Incansables eta Oriako txarangek kalez kale.



### »» OTSAILAK 23, "ASTELENITA"

- 9.00 Txarangen irteera.
- 10.30 Plaza Berrian sokamuturra.
- 11.00 Karroza eta konpartsen irteera.
- 16.00 Kalejira Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.
- 16.30 Zezenak Zezen Plazan; txarangek arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.
- 19.00 Dantzaldia Berdura Plazan Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.
- 21.30 Iturritxiki Plazatik "zezen suzkoa" irtengo da.
- 23:30 Plaza Berrian kontzertua.
- 23.30 Incansables eta Bonberenea txarangek kalez kale.

### »» OTSAILAK 24, "ASTEARTITA"

- 6.00 Udal Txistulari Bandak Alborada joko du Udaletxeko arkupetan, Berdura Plazan eta Felipe Gorriti Plazan.



# nitzorduak

8.00 Pattar zezena Zezen Plazan. Ondoren kalejira.

10.30 Plaza Berrian sokamuturra, Txapel Haundi txarangak alaituta.

11.00 Karroza eta konpartsen irteera.  
15.45 Herriko txistulari bandak, ohi-turazko ibilbidea eginez, "Idiarena" pieza joko du.

16.00 Kalejira San Esteban, Kabila eta Veleta-Aiz Orratz txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.



16.30 Zezenak Zezen Plazan; txarangak eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.

19.00 Dantzaldia Berdura plazan San Esteban, Kabila eta Veleta-Aiz Orratz txarangekin.

23.30 Incansables Zaharrak txarangearen irteera.

24.00 "Sardinaren hileta" konpartsa-  
ren irteera Gure Txokoa elkartetik.

## »» MARTXOAK 1, "PIÑATA" IGANDEA

Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa Iurreamendi Egoitzara joango dira.

# Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

## Ikastaroak

Office teknikaria	210 ordu	2009.03.02
Optika laguntzailea	160 ordu	2009.03.02
CAD-CAM. NX Abiadura altuko mekanizatzea	40 ordu	2009.03.03
Zenbaki kontrol bidezko programazioa eta prestaketa fresagailuan (Heidenhain)	46 ordu	2009.03.09
Beroketa instalazioen muntaia (zoru erradiatzailea)	20 ordu	2009.03.09
Kalitatearen kudeaketa	20 ordu	2009.03.16
Posizio horizontaleko MIG-MAG soldadura	50 ordu	2009.03.16

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitez harremanetan:

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17  
20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678

Posta-e: info@ikastn.com

<http://www.ikastn.com>

## Guardiako farmaziak

### OTSAILA

<b>Ostirala, 20</b> Morant Rosalia. Zabalarreta, 1, Tolosa
<b>Larunbata, 21</b> Tolosa, M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Igandea, 22</b> Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
<b>Astelehena, 23</b> Ugarte, M <sup>a</sup> Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Asteartea, 24</b> Iturmioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Asteazkena, 25</b> Etxebeste Jesus M <sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Osteguna, 26</b> Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
<b>Ostirala, 27</b> Olarreaga M (Martin Jose Iraola) Tolosa
<b>Larunbata, 28</b> Aziproz L. (Amaroz, 9) Tolosa
<b>Igandea, 1</b> Etxebeste Jesus M <sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Astelehena, 2</b> Iturmioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Asteartea, 3</b> Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
<b>Asteazkena, 4</b> Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
<b>Osteguna, 5</b> Ugarte, M <sup>a</sup> Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra

## Telefono interesgarriak

<b>Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albztur</b> Osasun zentroa . . . . . 943 653 212
<b>Altzo</b> Medikua . . . . . 943 654 737
<b>Anoeta-Alkiza-Hernalde</b> Medikua . . . . . 943 652 339
<b>Baliarrain</b> Medikua . . . . . 943 889 003 (asteazk.)
<b>Berastegi-Elduain</b> Medikua . . . . . 943 683 361
<b>Bidegoian</b> Medikua . . . . . 943 681 134
<b>Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gatzelu-Leaburu</b> Osasun etxea . . . . . 943 672 411
<b>Ikaztegieta</b> Medikua . . . . . 943 653 329
<b>Irura</b> Osasun zentroa . . . . . 943 690 720
<b>Tolosa</b> Ambulatorioa, larrialdiak . . . . . 943 650 931 San Esteban, hitzordua . . . . . 943 006 800 Gernikako Arbola,hitzor . . . . . 943 006 900 Amarozko dispensarioa . . . . . 943 672 637 Asunzioz klinika . . . . . 943 675 799 (larrialdiak) . . . . . 943 675 390 San Kosme San Damian geniatrikoa . . . . . 943 672 932 Udaltzaingoa . . . . . 943 675 858 Ur eta Argia (Tolargi) . . . . . 943 650 016 Ur zerbitzuak (aberriak) . . . . . 639 352 156 Iurreamendi egoitza . . . . . 943 670 325 Larrialdiak, Suhlitzailak . . . . . 112 DYA . . . . . 943 672 536 Gurutze Gorria . . . . . 943 674 888 . . . . . 943 651 425 Ertzantza . . . . . 943 673 022 Tolosa Gasa . . . . . 943 675 320
<b>Lizartza</b> Medikua . . . . . 943 682 077
<b>Orendain</b> Medikua . . . . . 943 655 595
<b>Orexa</b> Medikua . . . . . 943 682 228

**Vicente**  
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura ■ Faxa, 943 694291  
rotulosvicente@jet.es

**TXOKOLATEGIA**

**uli**

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

**KAFETEGIA**

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagire

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

## Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

### LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzea. **671 44 66 15**
- **Sagardotegirako sukaldari laguntzaile eta zerbitzaria** behar dira. **660 654 317**

### ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**
- **Ikasle bat, pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. **627834993**.
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

### SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipen 18.000 euro. **629 52 51 50**.
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669**.
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai** 617 863 669

# HOROSKOPOA

OTSAILAREN 20TIK MARTXOAREN 6RA ARTEKO AURREIKUSPENA



## ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Inauteri hauetan lan egitea egokitu zaizu. Lasai, epe luzera baliogarria izango da orain egiten ari zaren ahalegina. Zortea zure alde dago: loteria erosi beharko zenuke.



## LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Hainbat egoeren aurrean ausartago izaten ikasi behar duzu, eta egoera zure kaxa kudeatzen jakin. Atera besteen gonapetik, iniziatibak zeurea izan behar du. Familian arazoak.



## SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Inauteriak iritsi zain egoten zara emakumez janzteko. Ez zenuke lotsatu behar. Urteko egun guztietan atera beharko zenuke zure alderdi femeninoa.



## TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Egindako akatsak onartzen ikasi behar duzu, bide bakarra da harri berdinean bigarren aldiz estropozu ez egiteko. Bizkarreko mina laneko tentsioak sortzen ditu.



## VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Ez geratu erdi bidean. Beste ate bat ireki baino lehen, lehengoa itxi behar duzu. Zalantzak uxatzeko ondo etorriko zaizu; asteburu bat bakarrik ontea.



## CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Telefono dei misterioitsuak jasoko dituzu. Horrelakoetan ohikoa izaten da baten bat adarra jo nahian ibiltzea. Zure kasuan, miresle bat da deien atzean dagoena. Ea nor den deskubritzen duzun.



## GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Ez duzu lehen bezala faltan botatzen, bere musuek ez dizute horrenbeste zurrara eragiten. Lasai, bolada bat besterik ez da, hezurretaraino maiteminduta zaude.



## LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Lagunarteko otordu gehiegi dituzu aspaldi honetan. Zure poltsikoari ez ezik, sabelari ere kalte handia egingo diote. Kirola egokia da gehiegikeria horiek orekatzeko.



## AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Opor egunek on egin dizute. Une egokia da helburuak jarri eta horiek lortzeko bidea egiten hasteko. Aisialdirako tarte txiki bat hartu beharko zenuke eguneroko.



## CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Zure etorkizunerako garrantzitsuak diren pausoak eman dituzu azken hilabete hauetan. Zorionak. Bestalde, non hitz egin behar den eta non isilik egon ikasi beharko zenuke.



## SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Ahaleginak izango du bere saria. Gehiago disfrutuko duzu, sari hori zeure ingurukoekin konpartitzen baduzu. Elikadura zaindu.



## PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Hasieratik arauak adostea ondo egoten da gero gaizkiulerurik sor ez dadin. Aspaldiko lagunekin egoteak on egingo lizuke gaurko zurrunbilotik irteerako.



eragin<sup>+</sup> eta  
aldatu

www.analar.net

Bazkari

analar

ezkerreko altematiba abertzalea

The advertisement features a red background with a grid pattern. In the center, three people (two men and one woman) are smiling. To the right, the text 'eragin eta aldatu' is written in white. Below the people, the website 'www.analar.net' is visible. In the bottom right corner, there are logos for 'Bazkari' and 'analar'. At the bottom center, a white arrow points left towards the text 'ezkerreko altematiba abertzalea'.

DOZKATU GAZ. 2011-2012

tba  
pre  
txe

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

The advertisement has a green background with a halftone pattern. On the left, there is a silhouette of a person's head. In the top right corner, the text 'DOZKATU GAZ. 2011-2012' is written. In the center, the text 'tba pre txe' is written in large white letters. At the bottom, a dark grey banner contains the text 'ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO' in white.



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



## Senda Bide

Dieta diplomatuen aholkularitza profesionala

Dieta pertsonalizatuak  
Doako bisitak



- Elkartun bilingüeak
- Kontsulta nestunak
- Zehaznabako elkartunak
- Liburako ardurak hartzen ditugu.



San Iñakiaren, 14 - Ibilte: 943 656 444 - Ibilteak  
Kramer Kalea, 21 - Ibilte: 943 674 143 - Ibilteak